



Garrotxako Parke Naturala: litologia

Katalunian dagoen Garrotxako Parke Naturala ezaguna da antzinako erupzio bolkanikoek sortutako paisaiengatik. Hemen aurkitzen ditugun arrokek iraganean jarduera bolkanikoa nolakoa zen kontatzen digute. Bi arroka nagusiak **basaltoa** eta **material piroklastikoak** dira.

Basaltoa

Basaltoa arroka magmatikoa da. Laba (azalera ateratzen den magma) sumenditik jariatzen denean eta airearekin kontaktuan azkar samar hozten denean eratzen da. Solidotzen denean, haitz ilun eta gogorreko gainazal zabalak sortzen ditu, labazko isuriak bezala ezagutzen direnak. Arroka hauek Aro Kuaternarioan sortu ziren, duela 700.000 urtetik azken erupziora arte, duela 10.000 urte inguru. Geologikoki oso gazteak dira!

Basaltoak erresistentzia handia du. Tradizioz, harri lehorrezko hormak eta kaleak zolatzeko galtzada-harriak eraikitzeke erabili izan da (Oloteko alde zaharrean bezala), eta birrindu ere egin daiteke, errepideak eraikitzeke eta hormigoiak egiteko.



Material piroklastikoak

Material hauek jatorri magmatikoa dute. Sumendien erupzio leherkorrenetan sortzen dira. Airera bortizki jaurtitzen diren laba- edo harkaitz-zatiak dira. Erortzean, krateraren inguruan pilatzen dira zati horiek, parkeko kono bolkaniko bereizgarriak eratuz. Porotsuak eta arinak izaten dira, airean oso azkar hoztu zirelako. Basaltozko isurketen erupzioetan sortu ziren, Aro Kuaternarioan.

Arinak eta porotsuak direnez, lapilliak hormigoi arineko blokeak egiteko erabiltzen dira, lorezaintzan eta kirol-zelaietan material drainatzaile gisa (ura putzuz bete ez dadin laguntzen dute) eta, batzuetan, isolatzaile termiko natural gisa.



Glosarioa (hitz ezezagunak):

Litologia: Lursail bat osatzen duten harri motak dira.

Kuaternarioa: Aro geologiko berriena (duela 2,6 milioi urtetik gaur egun arte).

Piroklastoak: erupzio batean airera kanporatutako material bolkanikoaren zati solidoak (errautsak, lapillia, bonba bolkanikoak).

Lapilli: legar txikiaren tamainako piroklasto mota (2 eta 64 mm artekoa).

Kono bolkanikoa: Kono formako mendixka edo mendia, krater baten inguruan metatutako material bolkanikoek osatua.

Drainatzailea: Ura husten laguntzen duen materiala.

Informazio-iturriak:

Parkeko webgune ofiziala:

<https://parcsnaturals.gencat.cat/es/xarxa-de-parcs/garrotxa/inici/index.html>

Garrotxako turismoa: <https://es.turismegarrotxa.com/inicio/>

Oloteko sumendiei buruzko gunea: <https://espaicrater.com/es/>